



· **Izenburua:** *Biladi Hadi. Hamaika begirada Palestinari, Euskal Herritik*

· **Argitaratzailea:** Biladi Hadi elkarte

· **Urtea:** 2011

· **Orrialdeak:** 160

· **Prezioa:** 10 euro

· **ISBN:** 978-84-615-4889-7

**BILADI HADI hamaika begirada Palestinari, Euskal Herritik** izeneko liburua eta diskoa *Biladi Hadi* elkartasun brigadak Euskal Herriko hainbat sektoretako hamarnaka pertsonarekin batera hilabeteetan garatutako proiektua da. *Biladi Hadi* 2010ko uztailan eta irailean Palestinan izandako elkartasun brigada da, kulturgintzan eta bestelako eremuetan lanean ari diren euskal herritarrek osatua: musikariek, kazetariak, pailazoak, bertsolariek, zinemagileak, eta ikasleak, besteak beste.

Euskal Herritik elkartasuna adieraztera abiatu ginen Palestinara, eta herri bat ekarri genuen bueltan, bihotzean gordeta. Ekarrirakoak gutxi du oroigarritik, eta asko, behar beste, konpromisotik. Gure bidaia joan-etorriko lan gisa ulertu genuen hasieratik. Hala, han ikusitakotik eta ikasitakotik abiatuta, ekin diogu gurean herri palestinarren aldeko elkartasun olatua sortzeari.

Bide horretan aurrera egindako pauso bat baino ez da liburu hau. Euskal Herrian hainbat esparrutan lanean ari diren lagunekin elkarlanean, musika eta hitzak jarri dizkiegu gure bidaiari ateratako irudiei: palestinarren sufrikarioaren isla diren argazkiei. Horien bitartez, bat egin nahi dugu nazioartean garatzen ari den Israeli Boikot ekimenarekin, Israelek zapalketa alde batera utzi, eta herri palestinarra aske utz dezan.

Urrats txiki honek beste batzuk ekarri beharko ditu atzetik, azkenean herri gisa elkartasuna eta babesa eman diezaiogun Palestinari, eta herri gisa egin diezaiogun aurre Israeli. Bitartean, ordea, badugu zerbait eskuartean hartu eta begiratzen dugun bakoitzean bere etorkizunaren eta ametsen jabe izan nahi duen herri bat badela gogoratzeko. Izan dadila liburu hau askatasunaren aldeko beste urrats bat. Elkartasuna ematera sekula gehiago itzuli behar izan ez dezagun.

Palestinaren egoeraren nondik norakoak erakustez gain, Biladi Hadi brigadako lagunek ateratako argazkiei jarritako hitzak ere biltzen ditu lan honek. Honakoak dira, zehazki, argazkiei begira idatzi egindak:

- Gabi Basañez · Euskal internazionalista auziperatua
- Ainara Gorostizu eta Arantxa Iturbe · *Berría* egunkariko eta *Hik Hasi* aldizkariko kazetariak eta Biladi Hadi brigadako kideak
- Ainere Tolosa · Aktorea
- Alberto Arce · freelance kazetaria eta *To shoot an elephant* dokumentalaren egilea
- Alberto Pradilla · freelance kazetaria eta *El judío errado* liburuaren egilea
- Amets Arzallus · Bertsolaria eta kazetaria
- Ander Perez · Gazte mugimenduko eta Biladi Hadi brigadako kidea
- Harkaitz Martínez de San Vicente · Oreka TX musika taldeko kidea
- Aroa Lasa · Arramazka musika taldeko abeslaria eta Biladi Hadi brigadako kidea
- Asisko Urmeneta · Marraskilaria
- Axier Lopez · *Argia*-ko kazetaria eta Biladi Hadi brigadako kidea
- Beñat Hach Embarek · Sahararen aldeko ekintzailea eta gazte mugimenduko kidea
- Xabier Euzkitze · Kazetaria eta Saharautz elkarteko kidea
- Filipe Bidart · Iparretarrak erakundearen sortzaileetako
- Galder Olivares · Igorreko alkate ohia eta Biladi Hadi brigadako kidea
- Garazi Goienetxea · Ikasle mugimenduko eta Biladi Hadi brigadako kidea
- Gari Berasaluze · Kazetaria eta Biladi Hadi brigadako kidea
- Iñaki Garitaonaindia *Gari* · musikaria
- Gotzon Barandiaran · Idazlea
- Izazkun Guarrotxena · Mugimendu feministako kidea
- Imanol Murua · Kazetaria eta idazlea
- Iñaki Antiguiedad · Mugimendu ekologistako kidea, eta EHUko irakaslea
- Irune Berro · *Berría* egunkariko kazetaria
- Jesus Valencia · *La ternura de los pueblos*, *Euskal Herria internazionalista* liburuaren egilea
- Joanes Etxebarria · Bertsolaria eta kazetaria
- Jon Maia · Bertsolaria, musikaria eta idazlea
- Jon Mantzisor *Mantxi* · Gora Japon musika taldeko kidea
- Jon Maya · Dantzaria
- Josu Martínez · Zinema zuzendaria eta Biladi Hadi brigadako kidea
- Joxe Mari Karrera · Ipuin kontalaria
- Karlos Zurutuza · freelance kazetaria
- Koldo Alzola · Komite Internazionalistak taldeko eta Hala Bedi irratiko kidea
- Kristiane Etxaluz · Militante abertzalea
- Leire Ventas · *Urola Kostako Hitza* egunkariko zuzendaria eta Biladi Hadi brigadako kidea
- Lidon Soriano · Komite Internazionalistak taldeko kidea eta Biladi Hadi brigadako kidea
- Miren Amuriza · Bertsolaria
- Mikel Elorza · Abokatua
- Martxelo Otamendi · *Berría* egunkariko zuzendaria
- Miren Artetxe · Bertsolaria
- Maite Ubiria · *Kazeta.info* agerkariko kazetaria
- Martxelo Diaz · *Gara* egunkariko kazetaria eta Biladi Hadi brigadako kidea
- Mikel Kazalis · Matxura musika taldeko kidea
- Mikel Ayestaran · freelance kazetaria

- Mikel Etxaburu · Idazlea
- Mixel Berhokoirigoin · Laborantza Ganbarako lehendakaria
- Oskar Matute · Alternatiba alderdiko bozeramailea
- Pako Aristi · Idazlea
- Periko Solabarria · Militante abertzalea
- Aiora Zulaika · Pirritx pailazoa
- Sabin Ibazeta · Gernika Batzordeko kidea
- Alfonso Sastre · Antzerkigilea eta idazlea
- Oier Guillan · Antzerkilaria
- Sustrai Colina · Bertsolaria eta kazetaria
- Javier Etayo Tasio · *Gara* egunkariko marrazkilaria
- Jon Garmendia *Txuria* eta Xabi Solano · Idazlea eta Esne Beltza taldeko abeslaria
- Unai Vazquez · Auziperatutako militante internazionalista eta Biladi Hadi brigadako kidea
- Arantxa Erasun · Euskal Memoria elkarteko kidea
- Iñaki Viñaspre · Bertsolaria eta Biladi Hadi brigadako kidea
- Xabi Strubell · Zura musika taldeko kidea
- Haritz Gartxotenea *Xaporra* · Euskal preso politikoa eta Biladi Hadi brigadako kidea
- Zuhar Iruretagoiena · Artista
- Raeda Taha · Idazlea
- Joseba Sarrionandia · Idazlea
- Ahmed Jasalwa · Palestinaren Askapenerako Herri Frontearen gazteen adarreko kidea
- Mahmoud Darwish · Poeta palestinarra
- Liliana Cordova Kaczerginski · Militante internazionalista eta IJAN (International Jewish Antizionist Network) taldeko kidea
- Sergio Yhani · Alternative Information Center taldeko kazetari israeldarra
- Jamal Juma · Stop the Wall kanpainaren koordinatzailea
- Ali Mohamed Jaddeh · Palestinaren Askapenerako Herri Frontearen kide historikoa

Honakoak dira, berriz, diskoan parte hartu duten taldeak eta musikariak:

- ARRAMAZKA: Gure hitzak (feat Rim Banna + DAM)
- ERATU: Nablus ilun
- ESNE BELTZA: Free Palestine
- SKATU: Askatasun egarriz
- NAPAR-K: Eguneroko goizak (feat Arramazka)
- MADELEINE: Hartza
- BERRI TXARRAK: Arren, Darwish
- FERMIN MUGURUZA: Yallah, Yallah, Ramallah!
- MALDAN BEHERA: Mohamed
- JON ARANBURU: 31. eskubidea
- PIRRITX PORROTX ETA MARI MOTOTS: Palestinatik, maite zaitut!

## **ARGAZKIAK:**

Irantzu Pastor eta Axier Lopez kazetari eta argazkilarienak dira argazki gehienak, baina badira Biladi Hadi brigada osatu zuten gainerako lagunen hainbat begirada ere.

## **ERAKUSKETA:**

Era berean, liburu honetan bildu ditugun hainbat argazki hautatu ondoren, erakusketa ibiltaria ere abiarazi dugu euskal herrietan barrena. Honakoa da orain arteko egutegia:

- Arbizu: abenduaren 11 arte, udaletxean.
- Azpeitia: urtarrilaren 9tik 21era, San Agustin kultur gunean.
- Orereta: urtarrilaren 23tik otsailaren 6ra, Mikelazulo aretoan.
- Igorre: otsailaren 13tik 27ra.
- Donostia: martxoaren 1etik 15era, Alboka tabernan.
- Oiartzun: martxoaren 16tik 31ra, Makutxo tabernan.


## **AURKEZPENA:**

- Eguna: abenduak 8, osteguna.
- Ordua: 18:00.
- Herria: Durango.
- Lekua: Ahotsenea, Durangoko Azokaren egitarauaren baitan.

## **BILADI HADI Durangoko Azokan:**

ASKAPENAREN erakusmahaiaren eskuratu ahal izango da liburua eta diskoa Durangoko Azokan, 10 euroan.

Ondoren, Euskal Herriko hainbat tabernatan eta zenbait elkarteren egoitzetan izango da salgai.





**Biladi Hadi brigadari buruzko informazio gehiago:**

- bloga: [biladihadi.wordpress.com](http://biladihadi.wordpress.com)
- twitter: [@biladihadi](https://twitter.com/biladihadi)

**Harremanetarako: (elkarrizketak, banaketa, zalantzak...)**

- Axier Lopez: brigadaz eta disko liburuaz
- Aroa Lasa: diskoaz
- posta elektronikoa: [biladiraila@gmail.com](mailto:biladiraila@gmail.com)